

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Lemoako Udala****Udal Ordenantza Fiskalen aldaketaren behin-betiko onarpena**

Udalbatzar honek, aurtengo azaroaren 6ko Osoko Bilkuran batuta, hartu zuen Udal Ordenantza Fiskalen aldaketa behin-behinean onartzeko erabakia, 2020. Ekitaldian aplikatuak izateko:

Toki Araubidezko Oinarrien arautzailea den apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49, 70.2.a eta 111 artikuluetan eta Toki Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluan xedatua betez, interesdunek egokitzat irizten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahalgo dituzte iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbaturiko 30 eguneko epearen barruan.

Ondorioz, onarpen horrek behin betiko izaera du, Ordenantza fiskalen testu osoa argitaratuz indarrean sartzeko, eta bete eginaz, Ogasun Lokalak erregulatzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 16.4 artikulua agindutakoa eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2. artikulua xedatutakoa.

Lemoan, 2019ko abenduaren 20an. — Saioa Elejabarrieta Amorrortu



## I. UDAL-ZERGAK

## 2. ORDENANTZA FISKALA

## 1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga

1.1. Gutxieneko, gehieneko eta indarreko karga-tasa.

— Arau aplikagarria: 4/2016 Foru Araua, maiatzaren 8koa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez.

Honakoa da gaur egun zerga honen zerga-oinarri honi aplikatzen zaion karga-tasa, aintzat hartuta zerga-oinarria ondasun higiezinaren balioa dela, hau da, lurzorua eta eraikuntzen balioa:

*Hiri-lurrak*

Gutxie karga (%)	Gehien karga (%)	Udaleko karga (%)
0,02	0,60	0,1124

*Industria-erabileretarako hiri-ondasunak:*

Gutxie karga (%)	Gehienko Karga (%)	Udaleko karga (%)
0,02	3,00	0,5123

*Merkataritza-erabileretarako hiri-ondasunak:*

Gutxie karga (%)	Gehien karga (%)	Udaleko karga (%)
0,02	2,00	0,1271

*Gainerako erabileretarako hiri-ondasunak, bizitegi-erabilera eta beste batzuk izan ezik*

Gutxie karga (%)	Gehien karga (%)	Udaleko karga (%)
0,02	1,00	0,1378

*Landa-ondasunak:*

Gutxien karga (%)	Gehien karga (%)	Udaleko karga (%)
0,05	0,50	0,082

1.2. Gutxieneko, gehieneko eta indarreko karga-tasa.

Honako eguneratze hauek proposatzen dira (%16ko igoera):

*Hiri-ondasunak*

Gutxie karga (%)	Gehien karga (%)	Udaleko karga (%)
0,02	0,60	0,13

*Industria-erabileretarako hiri-ondasunak*

Gutxie karga (%)	Gehien karga (%)	Udaleko karga (%)
0,02	3,00	0,5943

*Merkataritza-erabileretarako hiri-ondasunak*

Gutxie karga (%)	Gehien karga (%)	Udaleko karga (%)
0,02	2,00	0,1474

*Gainerako erabileretarako hiri-ondasunak,  
bizitegi-erabilera eta beste batzuk izan ezik*

Gutxie karga (%)	Gehien karga (%)	Udaleko karga (%)
0,02	1,00	0,1599

*Landa-ondasunak:*

Gutxie karga (%)	Gehien karga (%)	Udaleko karga (%)
0,05	0,50	0,095

**4. ORDENANTZA FISKALA  
TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA****TARIFEN ERANSKINA**

Honako eguneratze hauek proposatzen dira (%1eko igoera):

Zerga-potentzia	Zenbatekoa (€)
<b>A) Autoak</b>	
8 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	25,55
8 eta 12 zerga-zaldi bitartekoak	69,19
12 eta 14 zerga-zaldi bitartekoak	128,78
14 eta 16 zerga-zaldi-bitartekoak	156,05
16 eta 20 zerga-zaldi bitartekoak	192,05
20 zerga-zaldi baino gehiagokoak	242,35

Plazak	Zenbatekoa (€)
<b>B) Autobusak</b>	
21 jarlekutik behera	173,52
21 eta 50 jarleku bitartean	248,06
50 jarlekutik gora	310,83

Zama erabilgarria	Zenbatekoa (€)
<b>C) Kamioiak</b>	
1.000 kg baino gutxiagoko zama	88,38
1.000-2.999 kg bitarteko zama erabilgarria	173,52
2.999-9.999 kg bitarteko zama erabilgarria	248,06
9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria	310,83

Zerga-potentzia	Zenbatekoa (€)
<b>D) Traktoreak</b>	
16 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	36,26
16 eta 25 zerga-zaldi bitartekoak	54,29
25 zerga-zaldi baino gehiagokoak	166,15

Karga Erabilgarria	Zenbatekoa (€)
<b>E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdi-atoiak</b>	
1.000 kg erabilgarri baino gutxiago	37,27
1.000-2.999 kg bitarteko zama erabilgarria	56,41
2.999 kg zama erabilgarri baino gehiago	173,52



Ibilgailu mota	Zenbatekoa (€)
<b>F) Ziklomotorrak Eta Motozikletak</b>	
Ziklomotorrak	9,65
125 cm <sup>3</sup> arteko motozikletak	11,77
125 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko motozikletak	14,90
250 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko motozikletak	30,55
500 eta 1.000 cm <sup>3</sup> bitarteko motozikletak	65,20
1.000 cm <sup>3</sup> baino gehiagoko motozikletak	131,50

**5. ORDENANTZA FISKALA  
HIRI-LURREN BALIOA GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA.****1. Zergaren gehieneko eta indarreko karga**

— *Arau aplikagarria:* 8/89 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Hiri-lurren Balioa Gehitzearen gaineko Zergari buruzkoa (1989ko uztailaren 19ko BAO, 5. artikulua).

Gehieneko karga (%)	Udaleko egungo karga (%)
10	5,50

Honako eguneratze hauek proposatzen dira (%1eko igoera):

Gehieneko karga (%)	Udaleko egungo karga (%)
10	5,56

**6. ORDENANTZA FISKALA  
ERAIKUNTZEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA****1. Zergaren gehieneko eta indarreko karga**

— *Arau aplikagarria:* 10/89 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari buruzkoa (1989ko azaroaren 19ko BAO, 3. artikulua).

Gehieneko karga (%)	Udaleko egungo karga (%)
5	4,88

Honako eguneratze hauek proposatzen dira (%1eko igoera):

Gehieneko karga (%)	Udaleko egungo karga (%)
5	4,93

**II. UDAL-TASAK****7. ORDENANTZA FISKALA  
HIRIGINTZA-OBRETARAKO LIZENTZIENGATIKO TASAK**

Honako eguneratze hauek proposatzen dira (%1eko igoera):

1. Egikaritze-aginduak edo obra-lizentziak, barne hartuta ikuskapenak egiteko eskubideak eta, hala badagokio, lehen erabilerarako lizentzia, honako aurrekontuen arabera:
  - 1.1. 600,00 eurora arte: 14,19 euro.
  - 1.2. 600,01 eurotik 18.000,00 eurora bitartean: 69,99 euro.
  - 1.3. 18.000,01 eurotik 30.000,00 eurora bitartean: 137,81 euro.
  - 1.4. 30.000,01 eurotik 60.000,00 eurora bitartean: 286,54 euro.
  - 1.5. 60.000,01 eurotik 150.000,00 eurora bitartean: 485,46 euro.
  - 1.6. 150.000,01 eurotik 300.000,00 eurora bitartean: 969,90 euro.
  - 1.7. 300.000,01 eurotik aurrera: 1.502,38 euro.



**8. ORDENANTZA FISKALA****1. Hilerriko zerbitzuak emateagatiko tasa**

aldatu egingo da zerbitzu publikoak eman eta IV. epigrafeko ekintzak egiteagatiko tasa arautzen duen ordenantzaren tarifen eranskina:

Honako eguneratze hauek proposatzen dira (%1eko igoera):

Elementua	Prezioa (€)
Nitxoa	439,70
Hezurtegia	147,56
Trenkada eraikitzea	74,64
Lurretik desobiratzea	176,70
Panteoitik desobiratzea	190,23
Nitxotik desobiratzea	147,61
Ehorzketa	73,83

**2. Establezimenduak irekitzeko lizentziagatiko tasa**

Honako eguneratze hauek proposatzen dira (%1eko igoera):

**1. Jarduera-espeditentea izapidetzea behar duten irekierak:**

- 50m<sup>2</sup> gainazal eraiki baino gutxiagoko lokalak 324,51 euro.
- 51 eta 100 m<sup>2</sup> eraiki bitarteko lokalak 608,42 euro.
- 101 eta 300 m<sup>2</sup> eraiki bitarteko lokalak 1.622,46 euro.
- 301 eta 500 m<sup>2</sup> eraiki bitarteko lokalak 3.042,12 euro.

500 m<sup>2</sup> baino gehiagoko gainazal eraikia duten lokalek gehiegizko gainazal eraikia izateagatiko tasa ordaindu beharko dute (euro/m<sup>2</sup>) 2,02 euro/m<sup>2</sup>.

**e) Aire zabaleko jarduerak:**

- Jarduera egiteko esparruak 10.000 m<sup>2</sup>-ko azalerara arte badu: 3.042,12 euro.

Gehiegizko m<sup>2</sup> bakoitzeko: 0,61 euro/m<sup>2</sup>.

- Jarduera bat berriz ere abiatzea eta/edo titulartasun-aldaketa, espeditentea berriz ere izapidetu behar ez bada: 320,17 euro.
- Jarduerak abiaraztea edo berriz ere abiaraztea industriak hirigunetik udalerriko industrialdetara eramateagatik: tasa ordaintzetik salbuetsita.

**3. Euskarako ikastaroengatiko tasa**

— Lemoan erroldatuta daudenak: ikasle bakoitzari dagokion matrikularen %20.

— Lemoan erroldatuta ez daudenak: 20 euro Lemoako Udalari eta ikasle bakoitzari dagokion matrikularen zenbateko osoa Euskaltegian.

**4. Kotxepin Kultur Etxea**

— Zinema:

- Sarrera orokorra: 4,00 euro.
- Haurrentzako zinema-saioak: 3,00 euro.
- Zineklubeko saioak: 2,00 euro.
- Zuzeneko emanaldiak: 0-30,00 euro.
- Txartela edo giltza berritzea, galdu izanagatik: 5,00 euro.



**10. ORDENANTZA FISKALA  
UDAL-JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOA  
EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIK EZARRITAKO TASAK**

Honako eguneratze hauek proposatzen dira (%1eko igoera):

**A) epigrafea. — *Eraikuntza-material, edukiontzi, hesi, aldamiio eta bestelako antzeko instalazioekin erabilera publikoko lurak okupatzea***

— M<sup>2</sup>/asteko edo zatiko eta asteko edo zatiko: 2,80 euro.

— Hondakindegia edo edukiontziak:

- M<sup>2</sup>/asteko edo zatiko eta asteko edo zatiko: 6,83 euro.

**B) epigrafea. — *Ibilgailuak espaloietatik sartzeta eta bide publikoa aparkaleku esklusiborako, ibilgailuak gelditzeko eta edozein motatako merkataritza-produktuak kargatzeko eta deskargatzeko erreserbatzea***

A) Ibilgailuak higiezinetan sartzeta:

1. Sarrera bakoitzagatik, 4 ibilgailura arte: 33,03 euro/urte.

2. Ibilgailu gehigarri bakoitzeko: 8,23 euro/urte.

B) Industrietara eta ibilgailu-saltokietara sartzeta: 107,06 euro/urte.

C) Eraikitzen ari diren eraikinetara sartzeta. Ezpaloi gainetik sartzeta, metro linean edo zati eta urteko edo zatiko: 49,19 euro/urte.

D) Aparkaleku-erreserbak:

1. Aparkaleku iraunkorren erreserbak, metro linean edo zatiko: 45,92 euro/urte.

2. Merkataritza-ordutegiko edo aldi baterako aparkaleku-erreserbak: 39,54 euro/urte.

3. Taxi-geralekuetan, ibilgailu bakoitzeko: 91,86 euro/urte.

4. Tallarreta auzoan dagoen udal-aparkalekuan aparkatzeko erreserbak: 20,81 euro.

**C) epigrafea. — *Erabilera publikoko lursailak mahai, aulki, mahaitxoekin eta irabazi asmoa duten antzeko bestelako osagaiekin okupatzea***

Metro karratu edo zati eta urteko:

— Estalitako tokiak: 20,30 euro.

— Estali gabeko tokiak: 10,05 euro.

**G) epigrafea. — *Udal-titulartasuneko bideak erabiltzea***

Baso-aprobetxamendurako zama daramaten ibilgailuek bideak erabiltzeagatiko tasa: 0,63 euro/Tn.

*Fidantzen zenbatekoa.*

Bidearen luzera/Fidantza

— 1 km-ra arte 1,95 euro/estereo edo 2,93 euro/Tm.

— 1 eta 2 km bitartean 2,80 euro/estereo edo 4,24 euro/Tm.

— 2 km baino gehiago 3,20 euro/estereo edo 4,95 euro/Tm.

— Edozein kasutan, honakoa izango da gutxieneko fidantza: 2.241,19 euro.



**11. ORDENANTZA FISKALA  
KONTROLIK GABEKO ABEREEN BILKETA-ZERBITZUAGATIKO TASA  
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

Honako eguneratze hauek proposatzen dira (%1eko igoera):

- Langileen gastuak: 12,47 euro/ordu eta pertsona.
- Lekualdatze-gastuak: 0,23 euro/km.
- Materiala (dardoak, xiringak eta abar): 49,69 euro.

Abereen mantentze-lanak:

- Azienda larria: 12,47 euro/egun.
- Azienda xehea: 6,21 euro/egun.